



BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA**GALTZADA NAGUSIA 26**

Jose Antonio Elizalde, 1934

Deskribapena

Kale kantoia egiten duen eraikina. Beheko solairua dauka, solairuarterik ez kaleko beste atari batzuetan ikusten dugun moduan, goiko lau solairu eta neurri batean atzera emandako bosgarrena, eta atzera emanago eta neurri batean ikusezina den seigarren solairua. Begiratokiek eginkizun garrantzitsua dute konposizioan, neurriengatik eta hartzen duten proportzio handiagatik, hegalik ez duen lerrokadura bezain, are garrantzitsuagoa. Bosgarren solairuan galeria ireki gisa luzatu zituzten, lehen erlaitzaren gainetik. Gainera, begiratokiek berek bao handiak dauzkate, eta alderdi itsuak pilastra eskemara murrizten dira, erritmo batez; horrenbestez, fatxadek irekigune asko dauzkate.

D mailako babes erregimen espezifiko

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: beheko solairuko aldaketak eta seigarren solairuko atikoa.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: ez.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: ez.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzeak: ez.